

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Milafranga



Aurkibidea

Udalerria: Milafranga

Sarrera



Milafranga Lapurdiko udalerria da, Hiriburuko Kantonamenduan dago kokatua. Milafranga hitza, gaskoierazko bièla francatik (herri frankoa) dator. Bere izen originala Bazter zen (1200. urtean Baster moduan adierazia). Antzinean Saint-Martin de Basters izeneko parrokia, elizaren lurak izan ziren XI. menderarte, Baionako apezpikuak elizbarrutiko lurralde franko egin zuen arte (hortik izena). Hiribururekin batua izan zen Frantziako iraultzan eta udalerrri berriak Tricolore izena hartu zuen 1794 eta 1795 urteen artean. Wellington jeneralaren eta Soult mariskalaren arteko bataila napoleonikoen eszenatoki ere izan zen (Errobiko eta Hiriburuko batailetan hain zuzen ere). Behereharta auzunea izan zen herriko gune ekonomiko garrantzitsuenetarikoa, ibai-portu eta zapatagintza zonalde garrantzitsuekin. Baiona, Basusarri, Uztaritze, Jatsu, Hiriburu eta Mugerre ditu herri mugakideak.

- **Biztanleak:** 2.266
- **Euskaldunak:** %9,07

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **1**
- Pasarteak: **12**
- Transkribatutakoak: **9**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **12**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Gilbert Cazenave (1928-2015)



Milafrangan sortua eta Lehuntzen bizi, Argi Zabal etxean. Zurgintza eta xitxuketa izan zituen afizioak. Bere tailerreko tresna zaharrak erakutsi nahi izan zituen elkarrizketan, gehienak zurgintzari lotuak, baita argia edo berogailu gisa ezagutu zituen bi tresna ere. Zurgintzako bertze izen batzuk ere aipatu zituen, batez ere teilatukoak. Bigarren mundu gerraz oroitzapen latzagoak zituen, batez ere preso eramán herritarrak gogoratzean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Milafrangan sortu

- **Hizlaria(k)**: Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: MIL-001/001
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1928ko urriaren 9an sortu zen Gilbert Cazenave Milafrangan, Uztaritze eta Hiriburu artean kokatua den herrian.

Transkripzioa

- Hara, hau martxan da! Arratsalde on.
- Bai, gisa bera.
- Jakin nahi nuke lehenik zuk zer duzun izena. Izena eta deitura, zer duzun.
- Cazenave Gilbert.
- Cazenave Gilbert?
- Bai.
- Eta Gilbert erraiten dizute edo baduzu bertze izenik, hola?
- Ez, ez, ez, ez.
- Gilbert, beti?
- Bai, bai, bai, bai. Ez dut /eztut/ bertze izenik, ez. Ez.
- Eta jakin nahi nuen nik noiz, ze egunetan sortua zaren.
- Urriaan beatzian, hooita zortzian.
- Hogeita zortzian?
- Bai.
- Eta bertze gauza jakin nahi nuen, non sortua zaren?
- Milafrankan.
- Milafrangan?
- Bai.
- Zu Milafrangan sortua zara?
- Bai.
- Erran nahi baita Lapurdin. Lapurdin...
- Bai.

- Uztaritzeko eta...
- Bai.
- Hiriburu...
- Bai.
- Hiriburuko eskualde horretan?
- Bai, bai, bai, bai.
- Ontsa.

2. Lanbideak

2.1. "Barlopa", zura zuzentzeko

- **Hizlaria(k)**: Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: MIL-001/002
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:00:55. **Bukatu**: 00:02:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Zurgina izan da Gilbert 30 urtez. Makinak gehienik erabiltzen baldin bazituen ere, lehenagoko tresna batzuk erakusten ditu. Erakusten duen lehena, "barlopa", zura zuzentzeko baliatzen zuen.

Transkripzioa

- Eta badituzu orduan tresna batzuk erakusteko...
- Bai.
- Orduan, has zaitez nahi duzun, nahi duzunetik, ontsa, ontsa erakutsiz, kameran, eta...
- Hala. Hoi 'barlopa', zera, horrekin xuxentzen da, zera, zura. Ta gio fini... finitzeko, ho... hookilan, bertze... bertze hookilan.
- Eta hori, nola erran duzu izena?
- 'Barlopa'.
- 'Barlopa'?
- Bai.
- Erakusten ahal duzu handi hori, hola, pixka bat trebeska, hola, zure kontra?
- A bai, bai. Hala.
- Hara, hori da?
- Bai.
- 'Barlopa'?
- Bai.
- Eta horrekin, zura... Zer egiten da?
- Horrekin, xuxen... xuxentzen da, ta... geo, finitzeko, hoiekilan eiten duu. Bertze hoi...
- Nonbait, zura nonbait sartzeko, edo kokatzeko?
- Bai, eta bai, bai, bai. Lehen, hoi... horrekin eiten gindiin. Ez zen, ez zen / etzen/ oaiko maxinaik!
- Ez, ez, bistan da. Orain denak maxinarekin egiten baitira.
- Oai bai, oai ez, ez tuu kasik xerbitzatzen hoik.
- Ez, ez!
- Orai ez, ez.

2.2. "Xixela" eta "mailuka"

- **Hizlaria(k)**: Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: MIL-001/003
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:02:23. **Bukatu**: 00:05:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Elkarrekin erabiltzen ziren "xixela" eta "mailuka" rekin, denetarik egiten ahal zen, hala nola, zizelkatzen, edo hozkak zilatzen. Orain, aldiz, makinekin egiten ditu bere lan gehienak, "fiteago eta errexago delako"!

Transkripzioa

- Eta baduzu bertze tresnarik erakusteko? Zernahi badituzu...
- A ba... Xixelak. Hoik...
- Eta horrekin zer egiten da?
- A, eta... ze iten da? Den... denetaik iten da.... Den...
- Berdintzen, edo...?
- Berdintzen, eta... ze iteko? Ba...
- Eta zizelkatzen ere?
- E?
- Zizelkatzen ere, pixka bat, edo...?
- A ta bai, bai. Bai.
- Eta hartu duzun bertze tresna, handi hori, zer da?
- Hoi, mailluka.
- Hori, mailuxka?
- Bai, hoi... xixela... xixelaan ze iteko... Horrekin iten da.
- Bai. Berezia da.
- Bai, bai.
- Hortakoa da, zizelkatzekoa?
- A bai, bai. Hortako da. Bai.
- Eta ikusten dut baduzula zizel bat baino gehiago.
- A bai!
- Zertarako? Zer da diferentzia?
- Badia... A ba... eta... difeentak. Izari guzietaik. Ta gio hemen bertzia xixela, zera, "goujat" erten dena. Hoi bertze modela bat da, hoi.
- A bai?
- Hoi. Ba... denetaik. Bai.
- Eta zer da? Batzuk lodiagoak dira... bertzeak...
- A eta bai, bai. Bai, bai.
- Eta hori, nola badakizu zoin behar duzun erabili, eta...
- A, eta... lanak manatzen du ze... ze behar duzun ibili... Ze... ze iten den, eta... harekin.
- Eman dezagun, behar baldin baduzu taula bat edo egin, edo taula bat, edo muble bat egin...
- Bai.
- Zein hautatuko duzu? Edo... edo ez dakizu, ez duzu hola jakiten ahal?
- A ba, oai ez duu /eztuu/ hoiekilan iten, maxinaekin iten duu oai. Oai ez duu... ez duu gehio... Bertzenez lehen, zera... mortitzakin behar zelaik, zila... zilatu behar zelaik, hoiekin iten giniin, hala, eskuz iteko.
- Zilatzeko horrekin?

- Bai, bai. Hola, zera... holako zerak in behar bazintiin, hoik maxinaekin inak die, bana lehen, horrekin iten giniin, xixela hoiekin.

- Eskuz?

- Eskuz, bai.

- Eta zoin da politena, edo errexena? Maxinarekin edo eskuz?

- A ba, maxinaekin errexo da!

- Maxinarekin errazagoa da?

- Bai.

- Nahiago duzu zuk maxinarekin?

- Eta... eta fitio egina! Bai.

- Zertako? Horrekin behar duzu dena ontsa kalkulatu, eta...?

- Eta bai, bai... Bai. Bai, bai. Ez da /ezta/... ez da gauza bera, ez!

- Ez?

- Ez, ez.

2.3. Esku-zerrak

- **Hizlaria(k)**: Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: MIL-001/004
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:05:43. **Bukatu**: 00:07:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Neurri guzietako esku-zerrak dauzka Gilbertek. Tresna guzi hauek bereak dira, "obralekuetan" ibiltzen zituenak.

Transkripzioa

- Zernahi baduzu hor eta erakusteko? Uste dut hor eta zerrak eta badirela...

- A ba, hor.

- Hartzen ahal duzu baño eskuetan, ikusteko?

- Hala. Hor, bada izari guzietak. Diferentak badie.

- Neurri guzietarik?

- Neurri guzietak, eta geo ze... ze lan den eiteko. Badia segatzeko, edo... Badia fini... zera kupa ttipi batekin behar dielaik, hoiekilan eiten dituu / eitentuu/. Bai.

- Eta segatzeko, zer segatzen duzu? Taula?

- Bai, bai.

- Edo edozein zur...

- Bai.

- ... zur klase?

- Bai. Bai, bai, bai. Bai, bai.

- Eta lehen, etxeetan, hainbertze bazen, edo zurgin baten etxean?

- A bai, hoi...

- Hainbertze bazen? Hainbertze klase?

- Ez. Ez, ez.

- Ez?

- Ez da /ezta/ denetan honbertze, ez.

- Ez?

- Ez, ez.

- Orduan eta horiek bilduak dituzu edo zureak izanak dira?

- Ba eniak izanak die, bai. Bai, bai. Bai, bai.
 - Eta horiek xantierretan eta...
 - A ba.
 - Hola baliatu dituzu?
 - Ba. Ba, ba, ba, bai. Bai, bai.
 - Eta bada bertze sega... 'sega' erraten diozu?
 - E?
 - 'Sega' edo 'zerra'?
 - 'Esku-zerra'.
 - 'Esku-zerra'?
 - 'Esku-zerra', bai. Baina bada bertze, horrela, hoi, egoina. Hoik bertze... bertze mota bat da hoi.
 - Eta horiek, berriagoak dira, horiek baino?
 - A ez, ez, ez. Ez, ez, ez.
 - Edo denboran ere baziren?
 - A ba, ba, denboran baziren ba. Bai.

2.4. Esku-zerra ttipia

- **Hizlaria(k)**: Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: MIL-001/005
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:07:43. **Bukatu**: 00:08:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Lanbideak » Antzinako lanbideak
 Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Pasarte honetan, arbola gaineko usategian zegoelarik, urrundik adarrak segatzeko egin zuen akaziazko esku-zerra ttipia erakusten digu.

Transkripzioa

- Sega ttipi hori, ikusten dut...
 - A ba, hoi, hoi nihauk ina, hoi.
 - Hori zuk egina? A bai?
 - Ba, ba.
 - Badakizu egiten orduan!
 - Hoi nihauk... nihauk ina.
 - Hori ere, eskuzerra?
 - Bai. Ba, bai.
 - Eta hori, zer...
 - Hoi ina... ina giniin urzoteian... zera... arbolen gainian, makila baten burüyan emaiten da, eta urrundarik segatzeko.
 - Orduan behar du arina izan.
 - A bai!
 - Eta zer zurekin egina duzu hori? Zer arbola klaserekin egina da?
 - Hoi, akaziaekin.
 - Akaziarekin?
 - Bai.
 - Eta zuk plegatua duzu hola edo?
 - Ez, ez, ez.
 - Eta hori nola egiten da? Nola...
 - Hola, hola... hautatüya... zera...

- A ba? Adarra?
- Ba, ba. Adarra, hola.
- Hola hautatua?
- Ba, ba.
- Behar da... behar da atzeman!
- Eta bai! Eta bai!

3. Natura

3.1. Tresnak egiteko edozein zur klase balia daiteke

- **Hizlaria(k)**: Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: MIL-001/006
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:09:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Natura » Flora
Lanbideak » Antzinako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Erakusten dituen tresna gehienak akaziazkoak baldin badira ere, tresnak egiteko edozein zur mota erabil daitekeela dio Gilbertek.

Transkripzioa

- Eta bertzenaz, zer zur klase baliatzen da tresna horien egiteko?
- Akaziazkoak dira denak, edo...
- Ez, ez, ez, bo... bo bada denetaik, bada akazia eta... ba, ez dakit /eztakit/ hor... Ba...
- Denetarik?
- Ba.
- Eta...
- Edozoin mota emaiten da hor...

3.2. Teilatuentzako zura Landetako segatokietatik etorrarazten

- **Hizlaria(k)**: Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan
- **Erref**: MIL-001/008
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:11:56. **Bukatu**: 00:14:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Natura » Flora
Lanbideak » Antzinako lanbideak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena**: Gilbertek baliatzen zituen taulak, pinuzkoak, Landetako "segerietatik" (zerrategietatik) etorrarazten zituen.

Transkripzioa

- Eta... eta lehen, nola... nola egiten zenuten etxea, zureria eta... Nola egiten zen? Lehenik zureria egiten zen... edo... edo lehenik paretak, edo...?

- A, lehenik pareta, bai. Bai, bai... lehenik paretak eta geo... geo teilatüya, bai.

- Eta erdian ere, tauladura eta...?

- A ba... ba... bai eta're, bai. Erdian, hoi eiten zen, harginak segituz.

- Harginak eginez bezala?

- Harginak einez bezala, zea... bai.

- Eta... eta taulak eta... non... non eginarazten zenituzten? Segerian?

- A ba... ba, hoi segerian iten zien, bai, hoik... Heldu zien prest emaiteko... segeriatik, hoik.

- Bazen... bazen segeria franko lehen edo...?

- A bai... bai... ba... bai.

- Non? Non ziren, eskualde honetan?

- Ba Landesetan...

- Landesetan?

- Gehienak, bai... bai Landesetan.

- Eta zer orduan zura? Pinua?

- A bai... ba, gehiena pinua, bai.

- A ba?

- Ba... ba.

- Etxe egiteko eta, pinua baliatu da, anitz?

- A ba... bai... ba... bai. Zonbat egiten zuten haitzez banan haitzez, karioo zen!

- Ba... ba, bistan da...

- Ez zen /etzen/ prezio bera!

- Eta hemen, eskualde honetan, badakizu zuk zer ziren hemengo arbolak, gehienak? Zer harrapatzen zen gehienik?

- Bo, haitzak.

- Haritzak?

- Ba.

- Haritza edo ametza?

- Haitza ba.

- Haritza?

- Bai... bai.

- Eta bertzerik, gaztainondo edo...?

- Ba guti hemen, gaztena.

- Eta hemengo... hemengo, Lapurdiko parte honetako etheen zureriak eta... zertazkoak dira?

- A ba, etxe zaharretan, haitza.

- A ba?

- Ba... ba.

- Haritza?

- Bai... bai.

- Nolaz hori?

- Lehenoo, duaika, merkexoo zen edo ez da /ezta/... ez dakit /eztakit/ nolaz...

- Edo bakoitzak bazuen bere...

- Bakotxak bee zera baziin, duaika, ez zen /etzen/ ... bai.

4. Ekonomia eta industria

4.1. Lanean eraikuntzan eta lantegian

- **Hizlaria(k)**: Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aire, Xan

- **Erref:** MIL-001/007
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:09:37. **Bukatu:** 00:11:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lantegiak
Lanbideak » Etxeginak
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Kimika gaiak ekoizten zituen lantegi batean egon da lanean 30 urtez, mantentze lanetan. Hori aitzin, 9 urtez egon zen eraikuntzan. Zur desberdinen izenak ematen ditu pasarte honetan.

Transkripzioa

- Eta zu, xantieretan, eta zertan ari izana zara? Teilatueta eta hola?
- Bai, lehenik ia... zerian... bastimendüian, beatzi urte ai izan niz, ta gio üsinan sartu niz, hor "produits chimiques" deitzen zena, hor "entretien" zian. Ene ofiziuari halan beti.
- Beti...
- Hooita, hooita hamar urte ai izan niz ofiziuari.
- Eta...Eta bastimenduan eta ari zinelarik lanean, teilatu eta egiten aritzen zinen?
- Bai, bai... denetaik, bai. Denak egiten nitiin.
- Eta badira zuren eta izen diferenteak, ez?
- A bai, bai.
- Erraten ahal duzu zer... zer diren?
- Ze?
- E be, badira zutoinak edo gapirioak edo...
- A bai, 'gapiriuak' eta... bai, bai.
- Gapirioa zer den esplikatzeko ahal duzu?
- Ta 'gapirioa' teilatüaan gainian emaiten dena, zeraan gio teilen errezeitzeko. Geo listeuak emaiten dia gainian, edo 'volija' ("volige"), dependitzen du ze... ia 'volija' ("volige") emaiten den ala... ala zerak emaiten ahal duzu, listeuak dietuki.
- Eta, eta gero, gapirioen artean, badira halako zur handiak.
- Bai.
- Eta horiek zer dute izena? Badute izen berezirik?
- 'Pana', 'panak' eta zera... 'arbaletria' ("arbalétrier").
- Eta hori euskaraz 'pana' erraten da?
- A eskuaraz ez dakit /eztakit/ nola... ze eiten. Frantsesez "les pannes", eta gio... gio're zera... 'fermak' ("fermes") badia eiteko. Hor badia 'arbaletriak' ("arbalétriers") eta tresnak, "entraits" erten dena, bai.

5. Herria, azpiegitura

5.1. "Garbüra"

- **Hizlaria(k):** Cazenave, Gilbert
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** MIL-001/009
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:14:31. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

- **Laburpena:** Pasarte honetan lehenago argia izateko erabiltzen zen lanpaz ari zaigu Gilbert. Daukan "garbüra" aski herdoildua izanik ere, nola ibiltzen zen zehazki esplikatzen du.

Transkripzioa

- Nik uste badituzun bertze tresna batzuk erakusteko hor. Argia eta... nola egiten zenuten edo...?

- A... hoik! Argia...

- Hartzen ahal duzu eskutan?

- Horrekin egiten giniin argia lehenoo.

- Eta horri zer izen ematen diozue?

- 'Garbüra'.

- 'Garbüra'?

- Lampa, bai.

- Nola... nola martxan zen hori?

- E ben hor...

- Ez da irekitzen?

- Ba... ez da /ezta/ iten ahal. Bon, hor idekitzen da ta hemen, huntan 'garbüra' emaiten ziniin, eta gainian ura.

- A gainean ura?

- Ura. Eta idekitzen, hor... horrekilan idekitzen, zeen... ez zen /etzen/... Ura behar zen /behartzen/ eman "mais" guti e.

- A guti?

- Zeen bertzenaz garbürak esposatzen ziin!

- Eta zer erraten zaio...?

- Eta hor pizten eta argia iten ziin.

- Argia egiten zuen?

- Bai.

- Eta nondik egiten zuen argia?

- Hor!

- Hori? Hori da?

- Bai.

- Zer? Anpoila edo... hori da?

- Ba, ba, ba. Ez da /ezta/... ez da /ezta/ ampula. Hortik jaltzen zen argia.

- Hortik ateratzen zen? Zer, su... su gisako zerbait?

- Bai, bai, bai... bai, suya... suya.

- Eta 'garbüra' erraten duzularik, zer zen? Petrolioia edo...?

- Ez, ez, ez. Harria bezala... zera. Harria bezala zen. Ez da /ezta/... ez dakit /eztakit/ nik nola erran, zea... Ta geo...

- Harri gisako zerbait?

- Hola... holako zera zen, hara. Holako zera eta hau hausten ziniin zera... hor sartzeko.

- Eta... eta horrek su hartzen zuen?

- A bai, bai, bai, bai. Ba, bai. Horrekin iten zen, suya.

- Horrekin egiten sua? Eta argian eta... zertan baliatzen zen lanpa hori?

- A eta... ez zen /etzen/ hoi bezik! Hor... den... denetako hoi ziniin.

- Ilundu... ilundu orduko baliatzen zen?

- Ilundu orduko ta sukaldian jateko horrekin eta ganberaat johan zinelaik, hoi segitzen ziniin, bai.

- Eta zuk beti ezagutu duzu edo gauza berria izan da zuretzat?

- Ez, ez, ez, ez... beti ezagutu dut ba nik.

- Beti ezagutu duzu?

- Haurrian ezagutu dut nik hoi, bai, bai, bai. Lehenoo, bizikletetan 'e hoi, zea... [Langiliak]... Nik aita ezagutu dut, bazen lampa hoi bano ttipioo ta aatsetan prepaatzen ziin, emaiten ziin 'garbüra' eta... zerian, prest emaiten

ziin ta laneat partitzian pizten. Ta horrekin joan zen bidian.

- Eta honela... honela egiten zuten?
- Eta bai, lehenoo hola... hola zen! Hola ezagutu dut ba, nik, haurrian.
- Eta pentsatzen dut laborari etxeetan eta... behiak deizteko...
- Ta behien deizteko hola zien ta geo lampa petrola bazien. Hua... hua badut hor... zeran, garajan badut lampa.
- Hura ezagutzen dut, orain ikusten diren holako lanpak dira...
- Eta bai, bai, bai, bai, bai, bai. Ta geo bujia bazian.
- Eta delako harri hori, su hartzen zuen harri hori, non eskuratzen zenuten? Non... nonbait erosten zen edo bazen kanpoan?
- A ez, ez, eosten... eosten zen ba.
- Erosen zen?
- Eosten zen, ba, drogerietan, bai. Eosten zen, bai.
- Eta petrolioa ere honelako lekuetan erosten zen?
- Eta bai, bai, bai, bai, bai. Bai, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Kafea berotzeko tresna (MIL-001/010)

Eskuetan daukan tresna zaharkitu bat erakusten digu, ttipitan bereziki kafea berotzeko baliatzen zutena. Supazterretik brasak bildu ondoan, leiho aitzinean kozinatzen zuten.

2. Lehengo baserriko tresnak (MIL-001/011)

Argazki album batean dauden lehengo baserriko tresnez mintzo da pasarte honetan: "harria", "arpana", "brabana" eta abar.

3. "Deratelua" (MIL-001/012)

Zulagailu elektrikoa sortu gabe, daratulua ("deratelua") zen garai hartan zura zilatzeke zegoen tresna bakarra.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com